

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2006KO URRIAREN HOGEITASEIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.

Zumaiako hirian, bi mila eta seiko urriaren hogeita seian, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA BIDEZKO BADA: 2006-09-28.

Alkate-lehendakari andereak bilera eratutzat eman ondoren, onarpenera aurkeztutako aktari buruz, korporazioko kideren batek, zuzenketarik egin nahi duen galdetu du.

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta zinegotziak dio euskarazko aktako 13. orrialdean, berak, Kultur Batzordeko Lehendakariaren hitzaldiaren erantzun gisa adierazitakoak ez direla jaso. Beraz, ondorengo jasotzea eskatzen du: Kontraesan bat dela kreditu aldaketa planteatzea egitasmo sendo bat badago. Lehenik Musika Eskolakoekin hitzarmena izenpetu dadila eta ondoren onartuko dira kreditu aldaketak.

Zuzenketa edo emendakin gehiagorik aurkezten ez denez, bozketa eginda, batzordekideek aho batez onartu dute 2006-09-28ko akta, azalduko aipamena kontuan izanik.

2.- 2007. EKITALDIRAKO ORDENANTZA-FISKALAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

Hazienda Batzordeko lehendakariak, Batzordeak luzaturiko diktamena irakurtzen du. Diktamenak honela dio:

2006KO URRIAREN 20KO HAZIENDA BATZORDEAREN IRIZPENA, 2007. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEARI BURUZKOA.

AURREKARIAK

1.- 2006ko irailaren 20ko Hazienda Batzordean 2007. urterako ordenantza fiskaletan igoerak onartzeko proposamena aurkeztu zen.

2.- 2006ko urriaren 10eko Hazienda Batzordean aurreko batzordean aurkeztutako proposamena berrir eztabaidatu zen eta aurkeztu ziren aurreko batzordean pendiente geratu ziren Musika Eskolako prezioak. Prezio hauek Musika Eskolako zuzendaritza berriak proposatutakoak dira datorren kurtsorako.

3.- 2006ko urriaren 20ko Hazienda Batzordean 2007rako ordenantza fiskalen igoera argitaratu den azkeneko KPIra egokitzen da, hau da, iraileko KPIa %2,9koa izan da.

4.- 2006ko urriaren 20an, udal Erregistro Orokorrean Ezker Batua taldearen proposamenari sarrera ematen zaio 2007ko ordenantza fiskalei dagokiona: kontzeptu guztiak %2,9an igotzea proposatzen dute, ordenantza fiskalak onartu aurretik argitaratu den azkeneko KPIa kontuan hartuta, hau da %2,9, iraila bitarteko KPIa.

5.- Irizpen honi 2007rako Ordenantza Fiskalen proposamena eranstean zaio.

IRIZPENA

Ondorioz, 2006ko urriaren 20an, EAJ-PNV eta PSOEn aldeko botoekin eta EAren abstentzioarekin, Hazienda Batzordeak aldeko irizpena jasotzen du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo simplea beharko da):

1.- Hasierako onarpenera ematea 2007. urterako Ordenantza Fiskalen aldaketari eta uztailearen 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua arabera, udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratzea hogeita hamar egunez zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du eta erreklamaziorik aurkezten ez badira behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaia 2006ko urriak 20
Kontuhartzaileak

Ezker Batua Berdeak taldeko bozemaileak galdetu du uraren tasaren igoera zergatik den % 3,5-ekoa.

Hazienda Batzorde Buruak erantzun dio, uraren igoera KPI-arena baino handiago izan dela zerbitzuaren kostua kobratzera behartuta gaudelako.

EA-ko bozemaileak hitz txanda erabiliaz dio, 2007. Urteko Ordenantza Fiskalen proposamenaren alde bozkatuko dutela. Arrazoia, EAJ-ren jarrera aldaketa. Hau da, orain artean KPI-a baino igoera altuagoak proposatu izan dira, beti ere Gipuzkoako mediara iritsi beharrean oinarrituta. Poztu egiten dira jarrera aldaketarekin eta 2007-rako KPI-aren igoera planteatzearekin. Agian, hauteskunde urtea datorrelako ote?

EAJ-ak erantzun dio, azterketa egin dutela eta KPI-aren igoerarekin Gipuzkoako batez bestekoaren mugan dabiltzala. Aurreko urteetan onartu diren igoerei esker batez bestekora iritsi direnez bidezkoa deritze aurtengo igoera KPI-arena izatea.

IZUSTARRI-k dio berak prentsan irakurtzen duenez, herri guztiak mediaren azpitik egoten direla. Ondoren testu bat irakurtzen du, bozketako abstentzioa arrazoitzeko.

2007ko ORDENANTZA FISKALEI BURUZ URRIAREN 26KO PLENORAKO

PNV-ren proposamenari bi alde ikusten diogu, bata positiboa eta bestea negatiboa.

1. Positiboa:

Legealdi honetako beste 3 urteetan ez bezala, aurten proposamenean KPIa 2bakarrik" igotzea proposatzen da. Irizpide hori ez dugu gaizki ikusten, itxura denez, eta

Ogasun Batzordeetan esan den bezala, Gipuzkoako batez bestekora ez garelako iristen tipoetan.

2.Negatiboa:

- Zergatik PNV-ren proposamen hau, aurreko hiru urteetan ez duenean hori egin ? Gure ustez arrazoi nagusiak bi dira: bata, gobernua apurtu zenetik ez dagoela konfiantzarik plenoetara planteamenduak eramateko segurantzaz faltagatik; bestea, legealdi honetako azken ordenantza fiskalak direnez eta gainean hauteskundeak dauzkagunez, ez delako komeni gehiago igotzea, gau hauek, PNVek esan ahi duen bezala "antipopularrak" dira.
- Etxebizitza hutsen eztabaidak ere bere horretan jarraitzen du. Foru Aldundiak berak kudeatzen dituen zergetan ba omen dauzka onartuta hobariak. Baina horrek ez du esan nahi udalak beraiek kudeatzen dituzten zergetan ez dutenik onartu behar hobaririk edo penalizaziorik. Ez dagoela definituta etxebizitza hutsa zer den ? Horren aurrean esan behar da "Deia" egunkariak orain dela pare bat urte erreportaje batean esaten zuela **Zumaian 3.680 etxebizitza zeudela, eta horietatik 618 hutsik zeudela.**
- Azken urteetako igoerak kontuan hartuta Udalaren egoera ekonomiko oso ona ikusirik, zerga eta tasa batzuen izozketa ere ondo ikusiko genituzke. Azken urteetan KPIa baino gehiago igo diren tasa eta zergak hauek dira:
 - 1.- **Hiri ondasunen gaineko zerga:** azken 3 urteetan %15 igo da; KPIa, berriz %8,4, KPIa baino %6,6 gehiago igo da.
 - 2.- **Ura:** azken 3 urteetan %18,7 igo da; KPIa, % 8,4; beraz, KPIa baino %10,3 gehiago igo da.
 - 3.- **Zaborra:** azken 3 urteetan % 13,5 igo da; KPIa, berriz, % 8,4 beraz, KPIa baino % 5,1 gehiago igo da.
 - 4.- **San Juan Egoitza:** azken 3 urteetan %14 igo da; KPIa, berriz, % 8,4; beraz, KPIa baino % 5,6 gehiago igo da.

Zumaian, 2006ko urriaren 26an.

IZUSTARRI.

EAJ-ak erantzuten du aurtengo ordenantzen igoera orokorrean KPIra egokitzen bada Gipuzkoako batez bestekora alde txiki batez iristen garelako dela. Beste ekitaldi batzuetan ez geunden egoera horretan, baina orain bai. Eta beraiek ez dute esan KPIaren gaintik igotzea neurri antipopularra denik, baizik ez popularra. Dena dela, ordenantza fiskalen bidez jasotzen den dirua herrira itzultzeko da, era batera edo bestera, baina herrira itzultzeko.

PSOE-k ordenantzei buruz Hazienda Batzordek emandako irizpena onartzen duela adierazten du. Aurten Gipuzkoako Udaletxe gehienak ez dira batez bestekotik pasako eta arrazoa ez da datorren ekitaldirako hauteskundearen deialdia. Eragina duten beste atal batzuk aztertu behar dira. Udaletxearen egoera ekonomikoa esaterako. Zein egoeratan dagoenaren arabera ordenantzetan agian igoera garrantzitsuagoak eman beharko liriateke. Hauteskundeengatik balitz urte oro hauteskundeak deitu beharko genituzke.

EA-ren iritzian, Udalerri gehienek ez badituzten KPI baino altuagoko igoerak proposatzen zerbaitengatik izango da.

PSOE-k galdetzen du: “oposizio gisa, zergatik ez dugu proposatzen bi puntutan ordenantzetan jasotzen diren kopuruak jaitea? Hauteskundearen arrazoa ez da egiazkoa. Zenbait tasak etorkizunean igoera nabarmena izango dute.”

EAJ-k dio aurten, urteetan aldaketarik gabea izan den Ordenantza Fiskalei buruzko eztabaida, lehenengo aldiz ohizkoak izan diren arrazoi bideetatik aldenitu dela. PSOE-k dioenaren haritik zenbait tasak igoera garrantzitsuak izango dituzte, adibidez zaborrarenak.

Tasaren legezko definizioaren arabera, zerbitzuaren kostua onuradunari kobratu behar zaio eta ezin dugu kostu hori urteetan zatikatu. Uraren KPI-aren goitikako igoeraren arrazoa ere hau besterik ez da.

Une honetan zabor bilketa zerbitzuaren kostuaren estimazio bat bageneuka % 15 edo % 20ko igoera proposatu beharko genuke, Donostian egin duten bezala.

IZUSTARRI aurten zaborra KPI baino gehiago zergatik ez den ba igotzen galdetzen du.

EAJ-k dio, kostu hori zenbatekoa izango den ez dakigulako. Kostuen kalkulua batetik Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuen kostuetatik datoz eta bestetik zabor bilketa zerbitzuarenetik. Bilketa hori beste era batetako izatea nahi badugu kostua igo egingo litzateke.

PSOE-k dio, Europako ekimenak direla eta ingurugiroari buruzko legeek behartzen gaituztelako zaborraren eta zabortegeien tratamendua bestelakoa izango dela. Adibidez konpostajea ezartzeak kostu bat izango du. Eta zerbitzuaren kostea estali behar denez, kopuruak igotzea dakar. Euskadin tratamendu hauek mankomunitateka egiten dira. Batzuk egin dituzte zenbakiak, San Markos, itxi egin behar dutelako. Ez da egiten besterik gabe, baizik ingurugiroa mantentzeko.

**2007KO EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN
PROPOSAMENAREN OSOTASUNA** bozkutzen da:

Aldeko botoak: 10 (5 EAJ, 2 EA, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)
Aurkako botoak : 0
Abstentzioak: 3 IZUSTARRI.

ERABAKI DA:

1.- 2.007-ko ekitaldirako Hazienda Batzordeak luzaturiko Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamena behin behingo izaeraz onartzea.

2.- Jende aurreko 30 eguneko epe bat irekitzea iragarkia GAO-an argitaratzen denetik zenbatzen hasita, erreklamazio eta oharpenak aurkezteko helburuz; aurkeztuko balira korporazioak ebatzi beharko lituzke, aurkeztuko ez balira behin betikoz onartutzat emango dira.

3.- ESKARI GALDERAK:

Alkatesak dio, ez ohizko Pleno bat deitzeko asmoa duela, bertan 1.go Sektoreko Puntanueta II-ko Plan Partzialaren Testu bateratua onartzeko, bidezko bada.

Gaurko Pleno hau ohizkoa dela kontuan izanik eta presazko izaeraz gehiengo absolutuak horrela nahiko balu gai hau sartzeko legezko aukera badagoela eta, proposamen hori luzatuko luke, baina beti ere zinegotziren batek ez baluke nahiko gaurko Plenoan gai hori tratatzea ontzat emango da eta ez ohizko Pleno bat deituko du.

Gai honek, Hirigintza Batzordearen aldeko erizpena du.

EA-k gai hori beste pleno baterako uztea eskatzen du, ez dutelako erizpena irakurtzeko aukerarik eduki.

Adierazten zaio Plan Partzialaren dokumentua Diputatuen Kontseiluak onartua duela jadanik, eta orain Udalari dagokiona zenbait zuzenketa egin eta aldaketa horiek jasotzen dituen Textu Bateratua onartzea dela, berriro ere Diputaziora igortzeko eta argitaratu ondoren indarrean sartzeko.

Alkateak zinegotziren batek eskari galderarik egin nahi duen galdetu du.

IZUSTARRIko bozemaileak, atzo arratsaldez, Inpernupen Idazkari judizialak, Ertzaintzak babesturik egin zuen inbentarioaren harira, prestatu duten agiria irakurri aurretik, korporazioa osatzen duten alderdiei zerbait esateko ba ote duten galdetzen die.

EAJ-k ezer prestatu gabe daukala adierazten du eta inprobisatzeak dakarren desabantaila kontuan izanda, zera adierazten du, EAJ alderdiak makina bat adierazpen egin dituela dagoeneko auzitegi gorenaren ekintzei buruz eta auzitegiaren erabakiaren izaera

politikoei buruz. “Guk bakea eta normalizazio politikoa nahi ditugu. Eta helburu horiek lortze arren ari gara lanean.”

PSOE-koek bileraren eten bat eskatzen dute erantzuna kontrastatzerik izan ez dutenez,. iritzi bateratu bat emate arren.

Bost minutuko etenaren ondotik PSOE-k zera dio, ez zutela Plenoan eztabaidatzerik espero, udalaren kudeaketari dagokion gaia ez delako. Baina galdera egin zaigunez erantzuten saiatuko dira: “Guk beti errespetatzen ditugu botere judizialaren erabakiak. Legea denentzako berdina da eta ezarritako ordenu bati erantzuten dio. Epaitegien erabakia gustukoa dugun edo ez onartu egiten dugu.”

EA-ren iritzian erabaki judizialak errespetagarriak dira, baina ez da kasualitatea momentu politiko honetan adibide hauek ematea.

Hor dago De Juanaren kasua, bi iritzi artikulurengatik epai hori jaso izana.

Batasunak hiru urte daramatza legez kanpo, ilegalizatuta.

Lehendakaria auzipetua dago, autonomi elkarteko ordezkari gorena.

“Guk guzti hau gaitzetsi egiten dugu eta inpultso politikoei erantzuten diela pentsatzen dugu.”

PSOE-k dio beraien iritzian ere agian ez dela momenturik egokiena ekintza horiek martxan jartzeko.

EB-ko ordezkariak alderdiaren zuzendaritzara zuzentzeko eskatzen du gai horri buruzko iritzia ematerakoan.

IZUSTARRI-k dio agerian gelditzen dela atzo eta orain sentitzen duen larritasuna eta samina, beraiena bakarrik dela.

EAJ-k erantzuten dio beraiak ere alderdi bezala larrizat jotzen dutela atzo gertatutakoa baina baita ere Lehendakariarena eta badirudiela batzuentzat larritasunak norberari dagozkionean direla larritasun.

IZUSTARRIk jarraian komunikatua irakurtzen du:

Hego Euskal herriko beste hainbat herritan bezala, atzo, urriak 25, ez ohiko bisita izan genuen Zumaiako Inpernupen: armez jositako ertzainez babestuta, idazkari judiziala sartu zen elkartean, ondasunen inbentarioa egitera.

Horren aurrean, **Izustarri herri-plataformak gogor salatu nahi du zumaiar askoren aurkako eraso zuzen hau**, asko baitira ezkertiar eta abertzale sentitu, Ezker Abertzalearekin bat egin eta Inpernupe Elkarte bilgune eta erreferentziazat daukatena Zumaiari. Baina abertzale eta ezkertiarren aurkakoa ez ezik, eraso zabalagoa ere bada, zumaiar eta euskal herritar guztien aurkakoa badelako, aspaldi hasitako katearen beste maila bat baita: ideien kriminalizazioa eta alderdiak legez kanpo

uztea, hautatzeko eta hautatuak izateko eskubiderik eza, auzipetzeak, atxiloketak, kartzeleratzeak...

Garai itxaropentsuan omen gaude, oraintxe onartu du adierazpena Estrasburgoko legebiltzarrak, baina zer gertatzen ari den ikusita, ez dirudi

hala denik: **batzuek konponbidearen aldeko pausoak ematen ari diren bitartean, beste batzuk oztopoak jartzen ari dira**, lehendik hasitako gerra bideari jarraitzen diote (auzipetzeak, epaiketak, salaketak...). Azken horientzat ez dago su etenik.

Oztopoak jartze horretan, Auzitegi Gorena, Entzutegi Nazionala eta abar ez dira ari bakarrik, ordea. Badaukate lan zikina egiten lagunduko diotenik: atea zabalarazten duten ertzainak, eta batez ere horien agintariak, Ibarretxeren auzipetzea "Ez zaie debalde aterako!" dioten berberak. Aitzakiatzat jartzen dute **legea bete eta betearazi egin behar dela, eta guk diogu bete behar dela bidezkoa baldin bada, baina bestela ezetz**. Eta kasu honetan, beste hainbatetan bezala, legea euskaldunon eskubideen aurkakoa da zuzen-zuzenean. Legea betetzen eta betearazten dute komeni zaienean, eta horren adibide ugari jar genitzake (adibidez, Hondarribiko Alardea).

Atzokoan ere, Zumaian, **ertzainak izan genituen Madrileko morroi, eta jarrera probokatzailerekin, gainera**. Izan ere, zertara etorri ziren ikusita, jendea bildu zen Inpernuperen kanpoaldean, eta legez kanpoko kontzentrazioa zelako aitzakian, mehatxu egin zioten Izustarriko zinegotzi bati, administrazio-prozedura zigortzaile irekiko ziotela, horrek ekar dezakeen guztiarekin.

Une honetan, euskal herritarren hitza eta erabakiak aintzat hartzeko itxaropenaren bidetik aurrera egin nahian ari garenean, **ez dira inola ere bidezkoak eta onargarriak Ezker Abertzalearen aurkako erasoak**, eta dei egiten diegu zumaiarrei parte har dezaten irtenbide prozesuaren defentsan.

Zumaian, 2006ko urriaren 26an

PSOE-ren iritziz IZUSTARRI-ren komunikatua, justu bakearen alde egin beharrean bakearen bidea zapuzteko modu bat besterik ez da. Jasotzen duen guztia gezurra da eta zeharkako ikuspegi bati zor zaio. Ez da 300 pistolen aurkikuntzaz aipamenik egiten, ez eta ere bidean lurperatu dituzten alderdikideei buruzko aipamenik ere. Hau onartzea aberrazio hutsa litzateke.

“Lehenengo zatia baliagarria litzateke baina gainerakoak ikuspegi partidista adierazten du. Ni hemen ordezkatzan ari naizen alderdiko kideak bidean hil dira eta besteok bizkarzaina daramagu.

Ikuspegi zabala izan behar da. Bakegintza prozesuarekin ilusionaturik gaude eta arakastaz atera dadin nahi dugu. Nahiz eta interesak dauden berau zapuzteko.”

EAJ-k dio nork bere buruaren errukia izatea ondo dagoela, baina besteen ere izan behar dela eta norberari gertatzen zaiona beti besteen erruz denaren ikuspegia aldatzeko garaia ere badela. Hausnarketa serio bat egiteko, alegia.

IZUSTARRI-ren iritzian beraiek irakurri duten komunikatua goitik behera gezurra dela esatea gehiegizkoa da.

EB-ak zera galdetzen du PERI-a onartu gabe obra baimenik eman daitekeen.

Idazkariak erantzuten dio PERI-aren onarpenera baldintzaturik eman daitekeela.

Beste gairik izan gabe, arratsaldeko bederatiak direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA